*Diputatu Nagusiaren Foru Dekretuak*

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**9051**

**351/2009 FORU DEKRETUA, abenduaren 23koa, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez, 2010ean irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei kultura jarduerak egiteko emango zaizkien dirulaguntzen deialdia onartzen da.**

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak 2010. Urterako helburuen artean aurreikusita du kultura jarduerak garatzea helburu duten elkarte eta entitateek sustatutako kultura ekimenei diru babesa ematea, ekimen hauek Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian programatu eta burutzen badituzte.

Horretarako, beharrezkoa da kultura ekimenak arautzeko berariazko markoa ezartzea, Sailak dirulaguntza aproposak ematea erabaki dezan.

Kultura Azpiegiturako Atalburuak egindako txostena aztertu da.

Hori dela eta, dagozkidan ahalmenak baliatuz, eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Elkarte eta entitate publiko eta pribatuek 2010. urtean sustatutako jkultura jarduetarako dirulaguntza deialdi publikoa onartzea. Deialdiak, gehienez ere, 242.500 euro egiten du. Hori dena, 2009ko urriaren 19ko ALHAOn (119 zenbakia) argitaratu zen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 69/2009 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko da. Foru Dekretu honen bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren.

Bigarrena.- Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2010erako Aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.05.82.05.461.00.01.

Hirugarrena.- Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, Kultura Azpiegitura Atalak proposatuta, sei hilabateteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko dute interesdunek.

Laugarren.- Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, baina berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta hilabete igaro baino lehen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluak xedatzen duenarekin bat etorriz. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Laguntza eman edo ukatu den jakinaraziko zaie eskatzaileei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikuluan jasotzen diren moduei jarraiki jakinarazi ere.

Seigarrena.- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena.- Dena den, Arabako Foru Aldundiak 2010. ekitaldirako duen gastuen aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa baldin badago egingo da deialdi hori.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 23a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, LORENA LOPEZ DE LACALLE ARIZTI.– Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA.

*Decretos Forales del Diputado General*

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**9051**

**DECRETO FORAL 351/2009, de 23 de diciembre, del Diputado General, que aprueba la convocatoria pública de subvenciones destinadas a Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro, para la realización de actividades culturales en el ejercicio 2010.**

El Departamento de Euskera, Cultura y Deportes contempla apoyar económicamente aquellas iniciativas culturales promovidas por asociaciones o entidades culturales que teniendo dentro de sus fines estatutarios el desarrollo de actividades culturales, programen y realicen éstas en el Territorio Histórico de Álava y Condado de Treviño, en el ejercicio 2010.

A tal fin, es preceptivo establecer el marco regulador específico al que han de ajustarse las iniciativas culturales para las que el Departamento arbitre las oportunas subvenciones.

Visto el informe emitido por el Jefe de Sección de Infraestructura Cultural.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen y a propuesta de la Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes,

DISPONGO

Primero.- Aprobar la convocatoria pública de subvenciones para el desarrollo de actividades culturales promovidas por Asociaciones y Entidades Culturales públicas o privadas que regirán en el ejercicio 2010, con una dotación máxima de 242.500 euros, que se regulará por lo previsto en el Decreto Foral 69/2009 de 6 de octubre, del Consejo de Diputados, publicado en el BOTHA nº 119 de 19 de octubre de 2009, que aprobó las bases reguladoras generales aplicables a las subvenciones que se otorguen en régimen de concurrencia competitiva en el ámbito de las competencias del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Segundo.- La partida presupuestaria que ampara este gasto es la 70.1.05.72.05.461.00.01, del Proyecto de Presupuestos de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2010.

Tercero.- El órgano competente, y a la vista de la propuesta de la Sección de Infraestructura Cultural, dictará la resolución que proceda, en el plazo máximo de seis meses desde la publicación de la convocatoria en el BOTHA. Transcurrido el plazo máximo sin que haya recaído resolución expresa, los interesados podrán entender desestimada la solicitud.

Cuarto.- La presente resolución agota la vía administrativa pudiendo interponer, de conformidad con el art. 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la notificación de este acto, ante la Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes o ser impugnado directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de notificación de este acto, ante la Jurisdicción competente.

Quinto.- La resolución de concesión o denegación de la ayuda será notificada a los/as solicitantes según las formas previstas en el artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Sexto.- Publicar la presente convocatoria en el BOTHA.

Séptimo.- No obstante, la convocatoria queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para 2010.

Vitoria-Gasteiz, 23 de diciembre de 2009.– El Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– La Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.– El Director de Euskera, Cultura y Deportes, AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA.

## ERANSKINA

LEHENENGOA.- GAIA ETA HELBURUA.

Deialdiaren helburua lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea da, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2010erako kultura elkarte eta entitateek sustatutako kultura ekimenak garatzeko, urriaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 69/2009 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Foru Dekretu honen bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

BIGARRENA.- AURREKONTU EGOZKETA.

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere horretarako bideratu den emakida baino gehiago, 242.500 euro, eta 2010erako Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontu Proiektuaren “Elkarteen Kultura ekimenak” izeneko 70.1.05.72.05.461.00.01 partidari egotziko dira.

Diru-laguntzek ezin izango dute, ez eranskin honen zazpigarren atalean zehaztutako ehunekoa gainditu, ez 18.000 euro baino gehiago egin, zenbat egintza edo programa sustatu gorabehera.

HIRUGARRENA.- ERAKUNDE ETA/EDO ELKARTE ONURADUNAK ETA BAZTER UTZITAKOAK.

Onarudun entitateak hauek izango dira:

Publiko nahiz pribatuak diren eta irabazteko xederik ez duten kultura elkarte eta erakundeak, egoitza edo ordezkaritza Araban edo Trebiñuko Konderrian badute. Federaziotan elkartuta ere egon daitezke.

Euskara, Kultura eta Kirol sailak emango diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituen urriaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 69/2009 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan baztertutakoak, hurrengoak ere kanpoan geratzen dira:

a) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta horietan sartuta edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak.

b) Ganberak, kooperatibak, ikastetxeak, sindikatuak, eta merkatari, teknikari, langile eta profesionalen elkarteak, ezta horien barne edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak ere.

c) Federazioak, klubak eta kirol elkarteak.

d) Elkarteak, taldeak eta antzekoak, helburuetan kultura izaerako jarduerek lehentasunik ez dutenean eta burutzen dituzten jarduerak kultura izaerakoak ez direnean.

e) Auzo, gazte, aisialdiko eta astialdiko elkarteak eta ikastetxeetako ikasle, ikasle ohi eta gurasoen elkarteak edo antzekoak.

LAUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK.

Kultura sustatu eta hedatzeko jarduera programak lagundu ahal izango dira diruz, baldin eta ondoko epigrafeetan zerrendatutakoen ezaugarriak badituzte:

1.- Hitzaldiak:

2.- Jardunaldi bereziak.

3.- Parte hartzeko kultur ekintzak (ikastaroak, lehiaketak eta lantegiak).

4.- Erakusketak

5.- Ikus-entzunezkoak.

6.- Eszena arteak, antzezlanak amateurrak direnean. Salbuespen gisa, ipuin kontalari profesionalen jardunak onartuko dira.

Dirulaguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko ondorioetarako, emakida ebazpenak aurkakoa adierazten ez badu, hurrengo gastuak ez dira kontuan hartuko:

a) Erakundea mantendu, kudeatu eta martxan jartzeko gastu orokorrak.

b) Ondasun higigarriak edo higiezinak erosi, konpondu edo zaharberritzeko gastuak.

## ANEXO

PRIMERO.- OBJETO Y FINALIDAD.

La convocatoria tiene por objeto la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, cuya finalidad es el apoyo al desarrollo de iniciativas culturales promovidas por Asociaciones o Entidades culturales para el ejercicio 2010 en el Territorio Histórico de Álava y Condado de Treviño, en el marco de lo dispuesto en el Decreto Foral 69/2009, del Consejo de Diputados, de 6 de octubre, que aprobó las bases generales reguladoras de concesión de subvenciones del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

SEGUNDO.- IMPUTACIÓN PRESUPUESTARIA.

El cómputo total de las subvenciones no podrá superar en ningún caso la dotación destinada al efecto, 242.500 euros, imputables a la partida 70.1.05.72.05.461.00.01 “Iniciativas Culturales Asociaciones”, del Proyecto de Presupuestos de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2010.

La cuantía unitaria de la subvención a asignar no superará los porcentajes establecidos al efecto en el apartado Séptimo del presente Anexo, y en todo caso no superará el importe de 18.000 euros por peticionario, con independencia del número de programas o actividades que promueva o solicite subvención.

TERCERO.- ASOCIACIONES Y/O ENTIDADES BENEFICIARIAS Y EXCLUIDAS.

Serán entidades beneficiarias:

Las Asociaciones y Entidades Culturales públicas o privadas, constituidas sin ánimo de lucro, que tengan fijado su domicilio social o delegación en Álava o Condado de Treviño, pudiendo agruparse en Federaciones.

Además de las excluidas en la cláusula tercera del Decreto Foral 69/2009, del Consejo de Diputados, de 6 de octubre, que aprobó las bases generales reguladoras de concesión de subvenciones del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes, quedan excluidas las siguientes:

a) Las Cuadrillas, Ayuntamientos, Juntas Administrativas, Institutos Municipales y Grupos o Asociaciones integrados o adscritos a los mismos.

b) Las Cámaras, Cooperativas, Colegios, sindicatos o Agrupaciones de comerciantes, técnicos/as, trabajadores/as y profesionales en general, así como los Grupos o Asociaciones adscritos o integrados o derivados de las mismas.

c) Las Federaciones, Clubes, y Agrupaciones deportivas.

d) Las Asociaciones, Agrupaciones, etc. entre cuyos objetivos o fines estatutarios no se incluyan los de carácter cultural de forma prioritaria y las actividades que desarrollen no sean en esta dirección.

e) Las Asociaciones vecinales, juveniles, de ocio y tiempo libre, de alumnos/as, de ex-alumnos/as, padres y madres de ex-alumnos/as de Centros de formación o similares.

CUARTO.- PROGRAMAS SUBVENCIONABLES.

Serán susceptibles de subvención los programas de actividades de difusión y promoción de la Cultura cuyas características se enmarquen dentro de los siguientes epígrafes:

1.- Conferencias.

2.- Jornadas específicas.

3.- Acciones culturales participativas (cursos, concursos, talleres).

4.- Exposiciones.

5.- Audiovisuales.

6.- Artes escénicas, cuando las representaciones sean ejecutadas por no profesionales. Como excepción se admitirá la actividad de cuenta cuentos ejecutada por profesionales.

A los efectos de obtención de subvención y/o de su justificación, salvo que la resolución de concesión exprese lo contrario, no se considerarán los siguientes gastos:

a) Los gastos generales de mantenimiento, de gestión y funcionamiento de la entidad.

b) Los gastos destinados a la adquisición, reparación y restauración de bienes muebles e inmuebles.

c) Bidaia, ostatu, publizitate, ordezkatze, protokolo, harrera eta antzeko gastuak.

d) Argitaraldiak, berdin diolarik zein euskarritan eginak diren.

e) Musika eta antzekoek eragindako gastuak.

f) Musika egintza osagarriek edo laguntzekoek eragindako gastuak.

g) Aisialdi jarduerek eragindako gastuak.

h) Zeharkako zergak, berreskuratzea edo orekatzea (BEZ kengarriak) posible izan daitekeenean.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikuluan ezarritakoa betez, hornitzaile bakar baten eskaintzari egotzi daitekeen diruz laguntzeko den gastuaren zenbatekoa 12.000 euro baino gehiago baldin bada, onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die gutxienez hiru hornitzaileri, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, zerbitzu edo hornikuntza hori egiten duen nahiko entitate ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehenago egin denean.

BOSGARRENA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

1.- Eskabideak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidaliko zaizkio eta eranskinean argitaratzen den ereduaren arabera aurkeztuko dira.

2.- Eskaerarekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dira:

a) Administrazio-agiriak.

1.- Eskaera orria sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

2.- Eskabidea egiten duen elkarte edo erakundearen ordezkaritzan diharduela egiaztatzen duen agiria.

3.- Entitatearen Estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Entitateen Erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. 2007. urteko ekitaldiaz geroztik aurkeztu zituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta eskabidea aurkeztu datatik aurrera aldaketaren bat egin dutenean.

4.- Eskabidea aurkeztu baino lehen, ezin izan bada erakundea identifikatzeko daturik aurkeztu, eta entitateari alta eman ahal izateko, edo kontabilitateko hirugarrenen fitxategian alta emateko edo datuak eguneratzeko, pertsona baimenduak sinatutako agirian ondoko datuak ekarriko dira:

Sozietatearen egungo helbidea, telefonoa, faxa edota posta elektronikoa.

Banku kontuaren zenbakia, hogei digituekin.

Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia (I.F.Z.)

b) Berariazko agiriak:

1.- Jardueraren proiektua, banan-banako azalpenak emanez:

Jardueren deskribapena.

Jardueren egutegia.

Ekintzaren aurrekontu xehatua. Bestalde, beste erakunde edo entitate publiko edo pribatu batzuei eskatutako laguntzak eta norberaren ekarpenak adierazi beharko dira.

Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza-baliabideak, materialak, azpiegiturak…….

2.- Erakundearen ibilbidea jasotzen duen agiria, non elkartearen ibilbidean egindako jarduerak, ekimenak edo garatutako proiektuak eta abar azaltzen diren. Datak ere jaso beharko dira.

Eskatzaileak soldatapeko langilerik balu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko luke. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeen egiaztagiriak aurkeztuko lituzke. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiago bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, halaxe xedatzen

c) Los gastos de viaje, estancia, publicidad, representación, protocolo, agasajo y similares.

d) Los gastos de edición de cualquier tipo de publicación, con independencia del soporte en el que ésta sea ejecutada.

e) Los gastos originados por acciones de animación musical y/o similares.

f) Los gastos originados por acciones musicales complementarias o de acompañamiento.

g) Los gastos originados por actividades de ocio y/o entretenimiento.

h) Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación (cuota de IVA deducible).

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 31.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, cuando el importe del gasto subvencionable imputable a la oferta de un único proveedor supere la cuantía de 12.000 euros, el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio, salvo que por las especiales características de los gastos suvbvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que presten el servicio, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de subvención.

QUINTO.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.

1.- Las solicitudes deberán ser dirigidas a la Diputada de Euskera, Cultura y Deportes y ajustadas al modelo que se publica como Anexo.

2.- Las solicitudes deberán acompañarse de la siguiente documentación:

a) Documentación administrativa.

1.- Fotocopia del D.N.I. del/a firmante de la solicitud.

2.- Documento que acredite que actúa en representación de la Asociación o Entidad solicitante.

3.- Fotocopia de los estatutos de la entidad y documentación que acredite estar legalmente constituida e inscrita en el correspondiente Registro de Asociaciones y Entidades. Se exceptúan aquellas entidades que ya los presentaron con posterioridad al ejercicio 2007, salvo que hayan introducido alguna modificación posterior a la fecha de presentación de la solicitud.

4.- En el supuesto de no haber sido aportados con anterioridad a esta solicitud datos identificativos de la entidad, y al objeto de poder dar de alta a la misma o actualizar los datos obrantes en el fichero de Terceros de contabilidad, se aportarán en un mismo documento firmado por persona autorizada, los siguientes datos:

Domicilio social actual, teléfono, fax y/o correo electrónico.

Cuenta bancaria con expresión de los veinte dígitos.

Fotocopia de la tarjeta de identificación fiscal (N.I.F.).

b) Documentación específica:

1.- Proyecto de la actividad, debiendo consignarse con carácter enunciativo y separadamente lo siguiente:

Descripción de la/s actividad/es.

Calendario de ejecución o desarrollo.

Presupuesto detallado de la/s actividades, señalando ayudas solicitadas a otras Instituciones o Entidades Públicas o Privadas, y aportaciones propias.

Recursos disponibles para gestionar las iniciativas presentadas, humanos, materiales, infraestructuras,…

2.- Documento que contenga la trayectoria de la entidad en el que se expliciten las actividades, iniciativas o proyectos desarrollados a lo largo de su vida asociativa, con indicación de fechas en las que hayan tenido lugar.

En el supuesto de que la solicitante contara con personal asalariado, salvo que por tratarse de una subvención de cuantía inferior a 800 euros se encuentre eximida de su acreditación, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 58/2004, deberá acreditar encontrarse al corriente de sus obligaciones fiscales y frente a la Seguridad Social, mediante la aportación de los certificados justificativos de tales extremos expedidos por los organismos compe-

baitu 58/2004 Foru Dekretuak. Zerga betebeharrei dagokienez, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta foru aldundiaren zeregina izango da hori egiaztatzea, Foru Ogasunari dagokion agiria eskatuta.

SEIGARRENA.- AURKEZTEKO EPEA.

Eskaerak aurkezteko egutegiko hogeita hamar eguneko epealdia egongo da deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

ZAZPIGARRENA.- PROZEDURAREN IZAPIDETZEA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK.

1.- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Azpiegitura Atalak izango du espedientea izapidetzeko eskumena.

2.- Balorazio-irizpideak.

A) Programak edo jarduerak zenbatean laguntzen duen kultura hedatzen eta sustatzen, eranskinaren hirugarren atalean deskribatzen diren epigrafeak oinarri; horri, gehienez ere, 45 puntu emango zaizkio, eta ondoko eskema hau izango da kontuan:

Hitzaldiak eta jardunaldiak: 45 puntu.

Haurrentzako ipuin saioak, haurrentzako lantegiak, parte hartzeko ekintzak, arte eszenikoak: 40 puntu.

Nagusientzako lehiaketak, erakusketak, ikastaroak eta lantegiak:30 puntu.

Ikus-entzunezkoak: 20 puntu.

B) Proposatutako programa edo jarduerak garatu beharreko kultur alorrean erakunde eskatzaileek erakutsitako jarraikortasuna, egonkortasuna, ibilbidea eta kaudimena. Horri, gehienez, 30 puntu emango zaizkio.

Hori balioesteko elkarteak zenbat urte eman duen jardunean izango da kontuan; baita azken zortzi ekitaldietan zenbat kultur programa edo jarduera antolatu dituen ere. Horretarako, ondoko balio hauek izango dira kontuan, eta azken emaitza aipatu bi alderdi horiek batuta ematen duen kopurua izango da.

Elkarteak, sortu zenetik, zenbat urte eman dituen kultur esparruan jardunean:

Urte 1 edo gutxiago: 0 puntu.

Urte 1etik 3 urtera: 1 puntu

3 urte baino gehiago eta 8 urte baino gutxiago: 3 puntu.

8 urte baino gehiago: 6 puntu.

Zenbat ekitalditan antolatu diren kultur programak edo jarduerak; 3 puntu ekitaldi bakoitzeko.

C) Programek edo jarduerek ondoko helburuetakoren bat izatea: emakumeen prestakuntza handiagoa eta emakumeen gizarte gaitasunak, adierazgarritasuna, norberarenganako estimua eta sormena bultzatzea, kultura adierazpenetan emakumeen parte hartze aktiboa eta esparru publiko zein pribatuan emakumeen aukera berdintasuna sustatzea eta emakumeek eta gizonek, eskubide eta betebeharrei dagokienez, ardura bera izan dezaten ahalegintzea. gehienez, 25 puntu.

Programa edo jarduera genero ikuspegitik garatzen bada 10 puntu.

Jarduera edo programa emakumeei zuzendu bazaie, nabarmen, eta irizpide honek jasotako izpiritu eta xedeak jasotzen baditu.25 puntu.

Balioesteko irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak zenbaki bat izango du emaitza, eta dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontua kontuan harturik emaitza horren araberako gehienezko dirulaguntza emango da.

| PUNTU KOPURUA | DIRULAGUNTZAREN GEHIENEZKO EHUNEKOA |
|---|---|
| 0 - 25 puntu | ehuneko 0. |
| 26 - 55 puntu | ehuneko 60. |
| 56 - 70 puntu | ehuneko 70. |
| 71 - 100 puntu | ehuneko 90. |

Emaitzen kopurua deialdiaren diru zuzkidura baino handiagoa bada, jaso beharreko dirulaguntza kopurua txikitu egingo da, arestian

tentes, así como no incurrir en las prohibiciones contenidas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre. Con respecto a las obligaciones tributarias, bastará la afirmación de tal situación, quedando a cargo de la Diputación la emisión del certificado a través de la Hacienda Foral.

SEXTO.- PLAZO DE PRESENTACIÓN.

El plazo de presentación de solicitudes, será de treinta días naturales contados a partir del siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el BOTHA.

SÉPTIMO.- INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO Y CRITERIOS DE VALORACIÓN.

1.- El órgano competente para la instrucción del expediente es la Sección de Infraestructura Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Alava.

2.- Criterios de valoración.

A).- La contribución del programa o actividad a la difusión y promoción de la Cultura, en relación con los epígrafes que se describen en el apartado Tercero del Anexo, con un máximo de 45 puntos, y con arreglo al siguiente esquema:

Conferencias y jornadas: 45 puntos

Cuenta cuentos infantiles, talleres infantiles, acciones participativas,artes escénicas: 40 puntos

Concursos, exposiciones, cursos, talleres adultos: 30 puntos

Audiovisuales: 20 puntos

B).- La continuidad, estabilidad, trayectoria y solvencia demostrada por la Entidad solicitante en el ámbito cultural en el que vaya a desarrollar la actividad o programa propuesto, con un máximo de 30 puntos.

Para su valoración se atenderá al número de años de presencia activa de la Asociación y a la organización de programas o actividades culturales en el espacio de los ocho últimos ejercicios, conforme a los siguientes valores, siendo el resultado final del criterio la suma de la valoración de ambos aspectos.

Años de presencia de la Asociación en el ámbito cultural tomados desde la fecha de constitución de la misma:

Hasta 1 año: 0 puntos

De 1 año y hasta 3 años: 1 punto

Más de 3 años y hasta 8 años: 3 puntos

Más de 8 años: 6 puntos

Número de ejercicios en los que se hayan organizado programas o actividades culturales a razón de 3 puntos por año.

C).- Que los programas y/o actividades tengan como objetivo posibilitar el acceso de las mujeres a mayores niveles de capacitación general; que favorezcan el desarrollo de habilidades sociales, asertividad, autoestima y creatividad de las mujeres; que promuevan la participación activa de las mismas en las distintas manifestaciones culturales; que fomenten la participación igualitaria de las mujeres en los ámbitos publico y privado y la corresponsabilidad de ambos sexos en derechos y deberes. Máximo 25 puntos.

Cuando el programa o actividad tenga un planteamiento de desarrollo desde la perspectiva de género10 puntos

Si la actividad o programa está dirigido de forma clara a la mujer recogiendo el espíritu y objetivos reflejados en el enunciado del presente criterio 25 puntos

La suma de los puntos de cada criterio arrojará una cantidad total unitaria en puntos que llevada a la escala que se describe, indicará el porcentaje máximo de la subvención a asignar en razón del presupuesto tomado para el cálculo de la subvención.

| Nº DE PUNTOS | PORCENTAJE MÁXIMO DE SUBVENCIÓN |
|---|---|
| De 0 a 25 puntos | 0 por ciento |
| De 26 a 55 puntos | 60 por ciento |
| De 56 a 70 puntos | 70 por ciento |
| De 71 a 100 puntos | 90 por ciento |

Si los importes resultantes superaran la dotación económica de la convocatoria, las cuantías a percibir se minorarán en igual pro-

aipatutako eskalan ezarritako batez bestekoen proportzioan, zer eta horiek deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

ZORTZIGARRENA.- EBAZPENA.

1.- Eskaerak balioespen batzorde batek aztertuko ditu. Balioespen batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek mahaikide: Kultura Azpiegiturako atalburua, eta aipatutako atalari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkari, eta horrek hitza izango du, baina ez botorik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki irizten dion kasuetan, aurkeztutako dokumentuei buruzko datuak eta azalpenak eskatzeko ahalmena izango du. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu egin daiteke, baldin eta datu nahiz azalpen horiek ez badira bideratzen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, 4/1999 Legeak aldatutakoak, ezarritako epeetan.

Balorazio batzordeak txostena egingo du, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren zerrenda, hala badagokio, zehaztuko da.

2.- Eskatzaileari ez zaio entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3.- Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, Kultura Azpiegitura Atalak proposatuta, sei hilabateteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko dute interesdunek.

4.- Dirulaguntza ematearen ebazpenak nori ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren berariazko gaitzespena jaso beharko du.

5.- Erabakian, baiezkoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da eta baita ordaintzeko modua, zein programari edo jarduketari eman zaion, aurkeztu behar diren agiriak eta zein baldintzatan ematen zaion ere. Hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 59. artikuluan xedatutako eran jakinaraziko zaio onuradunari.

6.- Laguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie eskatzaileei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikuluan jasotzen diren moduei jarraiki jakinarazi ere.

7.- Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraz, berorren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikuluak xedatutakoaren ildotik. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, errekurtsoa hilabetean aurkeztu ahalko zaio ebazpena eman zuen organo berari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

BEDERATZIGARRENA.- EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA ETA JUSTIFIKATZEA.

1.- Aldez aurretik edo kontura ordaintzea posible izango da, foru arauetan ezarritakoaren arabera.

2.- Dirulaguntza emateko ebazpenean adierazten den aurrerakina ebazpena ematen den egunetik aurrera ordainduko da.

Gainontzekoa, berriz, egindako gastuak, behar bezala zerrendaturik, zuritu ondoren, dena batera ordainduko da aurreko paragrafoan aipatutako “aurrerakina” kenduz. Azken ziurtagiriak 2010eko abenduaren 30a baino lehen aurkeztuko dira.

porción a los porcentajes establecidos en la escala anteriormente descrita, a fin de ajustar éstas a las disponibilidades presupuestarias de la convocatoria.

OCTAVO.- RESOLUCIÓN.

1.- Las solicitudes serán examinadas por la Comisión de Valoración presidida por el Director de Euskera, Cultura y Deportes de la que formarán parte, como vocales, el Jefe de Sección de Infraestructura Cultural y dos técnicos/as adscritos/as a la mencionada sección, actuando como secretaria, con voz pero sin voto, la Jefa de la Secretaría Técnica de Euskera, Cultura y Deportes.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deportes en aquellos casos que lo estime oportuno, podrá solicitar datos o pedir aclaraciones sobre las documentaciones presentadas que, caso de no evacuarse en los plazos que establece la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, podrían retrasar el expediente e incluso dar lugar al archivo del mismo.

La Comisión de Valoración, tras la comparación de las solicitudes presentadas de acuerdo con los criterios fijados en la convocatoria, emitirá un informe en el que se concrete el resultado de su evaluación y una prelación de las mismas, en su caso.

2.- Se prescindirá del trámite de audiencia, por no ser tenidos en cuenta en la resolución otros hechos y documentos que los presentados por las solicitantes.

3.- El órgano competente, a propuesta de la Sección de Infraestructura Cultural, dictará la resolución que proceda, en el plazo máximo de seis meses desde la publicación de la convocatoria en el BOTHA. Transcurrido el plazo máximo sin que haya recaído resolución expresa, los interesados podrán entender desestimada la solicitud.

4.- La resolución de concesión deberá contener los solicitantes a los que se conceda la subvención, y la desestimación expresa de las restantes solicitudes.

5.- En la resolución, caso de ser positiva, se hará constar cuantía de la subvención, forma de pago, programa o actividad afectada, documentación a presentar y condiciones en que se otorga, notificándose a las beneficiarias, conforme a lo previsto en el art. 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

6.- La resolución de concesión o denegación de la subvención será notificada a los solicitantes según las formas previstas en el artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

7.- La resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo conforme a lo previsto en el artículo 9.c) de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación.

En el caso de no impugnarla directamente, podrá ser recurrida potestativamente ante el mismo órgano que la dictó en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

NOVENO.- PAGO Y JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES CONCEDIDAS.

1.- Se establece la posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, conforme a lo establecido en la normativa foral.

2.- El pago del anticipo, en el caso de que se indique en la resolución de concesión, se hará efectivo a partir de la fecha de dicha resolución.

El resto, se abonará, en un único pago, previa justificación de los gastos realizados, debidamente relacionados, aplicando a este último pago la deducción del “anticipo” del párrafo anterior, bien entendido que la presentación de la justificación de los gastos totales, tendrá un plazo que finalizará el 30 de diciembre de 2010.

Dirulaguntza lortzeko aurkeztutako gastuen ordainketa egiaztatu ezean, justifikatu beharreko diru aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

2011ko otsailaren 25a baino lehen aurkeztuko dira dirulaguntza zuritzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituen urriaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 69/2009 Foru Dekretuaren hamargarren klausulan xedatutakoaren arabera egin beharko da dirulaguntzen justifikazioa.

3.- Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ebazpena aurkeztu beharko dute, BEZaren kuota jasanak diruz laguntzeko moduko gastutzat jotzeko. Ebazpen horrek onartu egin behar du erakundearen izaera soziala, halaxe jasotzen baitu BEZaren Foru Arauaren 20.Hiru artikuluak, zerga ordaindu behar izatetik salbuesteko, BEZaren Foru Arauaren 20.Bat artikuluak jasotzen duen bezala.

HAMARGARRENA.- DIRULAGUNTZEN BATERAEZINTASUNA.

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo honi atxikitako erakundeetatik jaso ditzaketen dirulaguntzekin. Salbuespen bakarra da bi erakundeek batera eta espresuki horretarako baimena eman izana.

HAMAIKAGARRENA.- PUBLIZITATEA.

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira komunikabideetan ahalik eta oihartzun handiena izan dezan.

En el supuesto de no acreditar el pago de los gastos presentados justificativos de la subvención obtenida, el abono se realizará en concepto de anticipo a justificar.

En un plazo que finalizará el 25 de febrero de 2011, deberá presentarse la documentación acreditativa del pago de los gastos justificativos de la subvención.

La justificación de las subvenciones se deberá realizar conforme a lo establecido en la cláusula décima del Decreto Foral 69/2009, del Consejo de Diputados, de 6 de octubre, que aprobó las bases generales reguladoras de concesión de subvenciones del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

3.- A los efectos de computar las cuotas de IVA soportadas como gasto subvencionable, deberán aportar la resolución del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, o de la Administración tributaria donde radique su domicilio fiscal en la que se le reconozca el carácter social de la Entidad previsto en el artículo 20 tres de la Norma Foral de IVA, a efectos de la aplicación de la exención del Impuesto contenida en el artículo 20 uno, apartado 14º de la Norma.

DÉCIMO.- INCOMPATIBILIDAD DE SUBVENCIONES.

Las subvenciones concedidas en esta convocatoria, con independencia de lo establecido al efecto en las bases generales reguladoras de concesión de las mismas, serán incompatibles con cualquier otra ayuda económica o subvención a que puedan acogerse en otros Departamentos de la propia Diputación Foral u Organismos adscritos a éstos, salvo que expresamente hayan sido autorizadas por las partes de forma conjunta.

UNDÉCIMO.- PUBLICIDAD.

La presente Convocatoria será publicada en el BOTHA, procurándose la máxima difusión a través de los medios de comunicación.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila
Departamento de Euskera,
Cultura y Deportes

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ELKARTE ETA ENTITATEEI DIRULAGUNTZA EMATEKO ESKAERA, KULTURA JARDUERAK GARATZEKO

2010EKO DEIALDIA

KULTURA AZPIEGITURA ATALA

ERAKUNDEA .................................................................................................. IFK .......................................................................

HELBIDEA .................................................................................................... HERRIA .............................................................

POSTA KODEA ................................ TELEFONOA: .................................. FAXA: .................................................................

POSTA ELEKTRONIKOA: ............ ............................................................. .............................................................................

Eta haren ordez:

ABIZENAK IZEN-ABIZENAK NANa KARGUA

........................................................................................ ....................... ................................................

- Harremanetarako telefonoa eta pertsona:.............................................

..........................................................................................................................................

- Erakunde eskatzaileak badu soldatapekorik bere menpe? BAI ☐ EZ ☐
- Erakunde eskatzaileak jasandako BEZaren kuota konpentsatu edo berreskuratzeko eskubidea dauka?: BAI ☐ EZ ☐

| JARDUERAREN/PROGRAMAREN IZENA | AURREKONTUA | ESKATUTAKO ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1. ................................................................................................ | ................................ | ................................ |
| 2. ................................................................................................ | ................................ | ................................ |
| 3. ................................................................................................ | ................................ | ................................ |
| 4. ................................................................................................ | ................................ | ................................ |

.................................., 2010eko ................ren .......(a).

(Data eta eskatzailearen sinadura)

ERANTSITAKO AGIRIAK

- ❑ NANaren fotokopia.
- ❑ Erakundearen ordezkari lanetan diharduela egiaztatzen duen agiria.
- ❑ Hirugarrenen fitxa eta erakundearen IFKren fotokopia (aurretik ekarri ez badira).
- ❑ Estatutuen fotokopia.
- ❑ Jardueraren proiektua: jardueren deskribapena, egutegia eta eskura dituzten baliabideak.
- ❑ Diru sarreren eta gastuen aurrekontua.
- ❑ Erakundearen ibilbidearen laburpena: elkarte bizitzan gauzatutako jarduerak, proiektuak eta abar.
- ❑ Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria.

LEGE OHARRA

Datu Pertsonalak babesteko araudian xedatutakoa betez, AFAk adierazten dizu formulario honen bidez lortutako datu pertsonalak erakunde honen fitxategi automatizatuen zati direla. Datu pertsonal horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Erabiltzaileak sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideei buruzko kontsulta edo azalpenen bat egin nahi badu, Arabako Foru Aldundiko Erregistroaren Bulegora (Probintzia plaza, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Araba) jo beharko du.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila
Departamento de Euskera,
Cultura y Deportes

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A ASOCIACIONES Y ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO, PARA EL DESARROLLO DE ACTIVIDADES CULTURALES

CONVOCATORIA 2010

SECCIÓN DE INFRAESTRUCTURA CULTURAL

ENTIDAD .................................................................................................. CIF ..........................................................................
DIRECCIÓN .............................................................................................. LOCALIDAD ..........................................................
CÓDIGO POSTAL ........................... TELÉFONO: ..................................... FAX: ....................................................................
E.MAIL:............................................. ............................................................. ........................................................................

y, en su representación:

APELLIDOS NOMBRE D.N.I. CARGO QUE OSTENTA

...................................................................................... .......................

- Teléfono y persona de contacto...........................................................................

.......................................................................................................................

- La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo?: SI ☐ NO ☐
- La entidad solicitante tiene derecho a compensar o recuperar la cuota de Iva soportada?: SI ☐ NO ☐

| DENOMINACION DE LA ACTIVIDAD/PROGRAMA | PRESUPUESTO | IMPORTE SOLICITADO |
|---|---|---|
| 1. ........................................................................ | ................................ | |
| 2. ........................................................................ | ................................ | |
| 3. ........................................................................ | ................................ | |
| 4. ........................................................................ | ................................ | |

En......................................, a........... de................................. de 2010.

(Fecha y firma del/de la solicitante)

DOCUMENTACION QUE SE ADJUNTA:

- ☐ Fotocopia DNI.
- ☐ Documento que acredite la representación de la Entidad.
- ☐ Ficha de terceros y fotocopia del CIF de la Entidad (si no han sido aportados con anterioridad).
- ☐ Fotocopia de los Estatutos.
- ☐ Proyecto de la actividad: descripción actividades, calendario y recursos disponibles.
- ☐ Presupuesto de Ingresos-Gastos.
- ☐ Resumen de la trayectoria de la entidad: actividades, proyectos desarrollados, etc. durante su vida asociativa.
- ☐ Certificado de estar al corriente en la S. Social.

NOTA LEGAL

En cumplimiento de la normativa de “Protección de Datos de Carácter Personal”, la DFA le informa de que los datos personales obtenidos mediante el presente formulario, forman parte de los ficheros automatizados titularidad de esta entidad. Estos datos no serán comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Cualquier consulta o comentario personal relativos al ejercicio de derechos de acceso, cancelación, rectificación u oposición, deberá remitirse a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).